


FRANTZISKO AITA SANTU BARRIA

Martiaren 13 geroztik, Aita Santu barria daukagu. Hori da inportanteena. San Pedro Apostoluaren ondorengoa, Kristoren ordezkaria sinismenean eta maitasunean Eleiza gidatzeko. Hori da bere zeregin nagusiena eta garrantzitsuena. Beste gauza guztiak bigarren edo hirugarren mailakoak dira. Esaterako, bere adina, argentinarra dala, zenbat hizkuntzan dakizan, bere ikasketak non egin eta zer titulu akademiko daukan, jesuitea dala eta abar eta abar...

Egia esan, nik neuk oraintxe arte, Aita Santu barriari buruz, ia ez dot ezer jakin. Konklabe aurretik eta konklabe aldian, beste kardinal batzuen izenak agertu ziran periodisten kiniele-tan eta Aita Santu urten dauanaren izena kasik inon entzun ere ez zan egiten. Begitu nondik, kardinalen botazioen bidez, Argentinako seme bat izango da Aita Santu barria. Periodisten eta komunikabideen bideak ez dira, zorionez, Jaungoikoaren bideak.

Batikanoko balkoitik “Urbi eta Orbi” bedeinkapena emon aurretik, otoitz eske eta burua makurtuta otoitzean ikusi bezain laster burura etorri jatazan Jesusek San Pedro Apostolari egindako oinarrizko promesak. Behin, Filipo Zesarea herrialdean, Pedoren sinismen-autortza entzun ondoren, dinotsona: “Zu harria zara; harri horren gainean eregiko dot Nik neure Eleizea; eta heriotzaren indarrak ez jakoz nagusituko. Zeuri emongo deusudaz zeruetako erreinuaren giltzak. Eta zuk lu-



rrean lotua, zeruetan ere lotua izango da; eta zuk lurrean askatua, zeruetan ere askatua” (Mt 16, 18-19). Pasioa hasi bezperan dirautsona: “Simon, Simon! Zuek garia lez galbahetzeko eskubidea eskatu dau Satanasek; baina, nik zure alde erregutu dot, zure sinismena makaldu ez daiten. Eta zuk, damutu zaitenezenean, sendotu egizuz zure anaiak” (Lk 22, 31). Eta hilda biztu ondoren Tiberiadesko itsasertzean apostoluei agertzen jakenean, Pedrori begira-begira egindako galdera: “Simon, Joanen seme, maite nozu? Bai, Jauna, zuk dana dakizu; zuk bada-kizu nik maite zaitudana. Eta Jesusek hari: Zaindu egizuz nire ardiak” (ikus. Jn 21, 15-18).

Frantzisko Asiskoaren omenez

Honela azaldu deusku Jorge Bergoglio Aita Santuak bere izen barria. Periodistekin alkartu zanean inotsen: “Askok ez dozue jakingo zergaitik aukeratu izan dodan Frantzisko izena Aita Santu bezala. Batzuk pentsatu dozue Frantzisko Xabierkoagaitik. Beste batzuk Frantzisko Saleskoagaitik. Eta baten batek Frantzisko Asiskoagaitik. Neuk kontatuko deusuet neure izen barriaren historia. Konklabean sartuta gengozala, Klaudio Hummes kardinal brasildarra neunkan alboan. Aita Santu izateko botazinoan aukeratu ninduenean, kardinal guztiak txaloka hasi ziranean, Sao Pauloko kardinalak besarkatu eta musu bat emon ondoren hauxe esan eustan belarrira: “Ez ahaztu pobriekin”. Orduntxe bertan etorri jatan burura Frantzisko izena ipintea. Niretzako Frantzisko Asiskoa baita pobreziaren gizona, bakearen gizona, krezazioa zaindu eta maite dauanaren gizona. Horregatik aukeratu izan dot Frantzisko izena. Gero egon ziran beste kardinal batzuen ateraldi umoretsuak ere. Batek, Eleizak erreforma sakonak behar ditualako, Adriano izena gogoratu eustan, Adriano VI.a erreformatzaile handiaren antzera. Beste batek Klemente XV.a izena inostan.

Zergaitik? Ba, horrela, Jesusen Lagundia ezabatu eban Klemente XIV.aren memoria mendekatzeko”.

Miserando atque eligendo

Jentea hasi da holakoa edo halakoa dala Aita Santu barria esaten. Ni neu ez naz gauza, holako saltsetan sartzeko, ez do dalako oraindino fidegarrizko datu zehatzik. Hori bai, gizon humil eta bihotz onekoa dirudi. Ez bakarrik Aita Santu izateko hartu dauan izenagaitik, baita bere armarrian jarritako goiburua oso esanguratsua dalako ere: “Miserando atque eligendo”. Bere Aitasantutzako hitzaldietan Jaungoikoaren errukia eta maitasuna behin eta berrero goraiatzen ari da. Jaungoikoaren errukiari buruz, benetan gauza ederrak eta egokiak gogoratu deuskuz. Eta ondo esanda gainera.

Baina bere Aitasantutzako hitzaldi programatikoena, baliteke izatea kardinalai egindako hitzaldia. Bertan hiru berba erabili ebazan orientagarri: IBILI – JASO – AUTORTU.

Eleiztarren lehenengo zeregina: IBILI, hau da, Kristo Jesusen bidea egin, Kristo Jesusen bidean aurrera egin, Kristo Jesusen argitan eta presentzian ibili.

Bigarren zeregina: ELEIZA JASO, hau da, Kristo Jesusen gainean eraiki Eleiza, Kristo Jesus jarri Eleizaren zimentarri eta giltzarri. Ideia hau azaltzeko, konparazino polit bat darabil: “Hatx gainean jasoten ez dan etxea, umetxoak ondartzan egiten dabezan gazteluak bezala desagertuko da”.

Eta hirugarren zeregina, KRISTO AUTORTU: “Ibili gein tekez hara eta hona, baita gauza asko be egin geinkez, baina Kristo Jesus iragarten ez badogu, gureak egin dau. Izango gara goztainak, abadeak, Aita Santua, laikoak, fraileak baina ez kristauak. Saiatu gaitez an Kristo Jesusen Kurutzea lepoan hartuta beraren bidea egiten. Ahaleginak egin daiguzan, Kristo Jesusen gainean Eleiza jasoten. Eta lehiatu gaitez an Kristo Jesus kuru-

tzeratua eta biztua iragarten. Kristo Jesus barik, ONG besterik ez litzake izango Eleiza, baina inondik inora ere ez Kristoren Eleiza”.

Frantzisko Aita Santu barria ez datorkigu txantxetan, gauzak bere lekuan jartera baino. Horretarako gure laguntza eta otoitza behar ditu. Baita gure esker ona ere. Eta ez bakarrik erremindutako eleiztar antzuen kritika ustelak.

A. Olea